

kalean behera

JOSEBA BELOKI ONCE-EROSKI TALDEKO TXIRRINDULARIA

«Gasteizko jaiak, beste hiriburuetakoeekin konparatuta, aspergarriak dira»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Joseba Belokik (gipuzkoarra jaiotzez, baina bizitzak gasteiztar bilakatua) iragan asteleheneko egun handia baliatu zuen festan murgiltzeko, Alemaniako lasterketa baten eta entrenamenduen artekin.

■ Parrandarako aukera guztixoa, ezta?

Bai, baina dudan apurra aprobetxatzen dut Aihotz Plazako giroaz gozatzeko: dantzariak, trikitia, bertso saioak... Horixe dut gustukoen, kaleko giroa ikusteaz gain.

■ Jaiari eusteko 'dopatze-ko' beharrik al duzu?

Freskagarriren bat...

■ Soilik?

...eta zuritoren bat ere bai. Kontua da garai honetan pisua dezente murriztuta dadanez, alkohol pixka bat edan eta berehala nabaritzen dela.

■ Mutil zintzoa zara, gero.

Parrandatxoa egiteko gogoia izanda ere, arazoa da orain daukadala denboraldiko punturik garrantzitsuen (Tourra, lasterketa batzuk, Espainiako Itzulua gero), eta beraz, neurria galtzea ez da posible, besteak beste, jende askok eza gutzen naudelako. Baina Mundiala pasatu ondoren, bai, orduan izaten ditugu gureak...

■ Ditxosozko dopina. Etxean ere adi ibili behar!

Gertatzen da komisarioren bat edozein unetan agertu daitekeela ezusteko kontrola egiteko.

■ Gaupasarik ez, beraz.

Ez! Neguan, akaso! Nik ez dut behin ere gaupasarik egin, baina nahiko banu ere, gorputza ez nuke horretarako prest edukiko. Goizeko 04:00etan



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

hankak ez daude festan ibiltzeko.

■ Gainera, lan nekeza izango da kaletik ibili eta jende guztiak ezagutzea, ezta?

Hori eraman egin behar da. Lagunak daude, baita telebistaz ikusi nautenak ere. Horregatik, kalera irten, ibilaldi lasaia egiteko? Hori ezin da.

■ Gainera, jaietan, jendeak areago agurtzen du.

Segun zer ordutan lagun gehiago duzu, eta ni, gainera, oso lotsatia naiz horretarako.

■ Eta, gainera, zure neskalaguna ere ospetsua egin da; Jose Maria Aznarren emaztearen antz handia duela diote espainolek...

Bai? Ene! (Harridura aurpegia

GAUPASA

“Ez dut behin ere egin, baina nahiko banu ere, ez dut gorputza horretarako prest”

jarri du, baina kontuak ez dio grazia handia egin).

■ Blusa izan al zara?

Ez, gehiegi litzateke niretzat, horrenbeste egunetan kalean ibili beharra eta. Bistan da, dena den, koadrilek sortzen dutela giro gehien, Gasteizko jaien irudia direla.

■ Txosnazalea al zara?

Bai. Normalean lagunekin bildu eta txosnetara joaten gara.

■ Konparatu, mesedez, Euskal Herriko hiriburuetak festak Gasteizkoekin.

Esango nuke, akaso, Gasteizko jaiak aspergarriagoak direla. Gasteizen, lehendabiziko bi edo hiru egunak igaro ondoren, monotonia bihurtzen dira, eta seinalea da jende askok ospa egiten duela.

■ Musikazalea al zara?

Eskaintzen dituzten kontzertuak ez zaizkit gustatzen.

■ Su ta Gar, Chenoa edo Secretos. Aukeratu bat?

Nik jarraitu nuen Operacion Triunfo, baina Su ta Gar nahiago.

EGITARAUA

GAUR

- 09:00:** San Migel parrokian blusa beteranoak: meza, lore eskaintza, ohorezko aurrekua eta argazkia.
- 10:00:** Banda eta txarangen deia.
- 11:00:** Ogeta pilotalekuan esku pilota. Zezen plazan bigantxak. Foru plazan Arabako boloen erakustaldia.
- 11:30:** Eskulangintza azokak.
- 12:00:** Buruhandi, erraldoi eta zalditxoak. Peñafloreda parkean, Gargantua.
- 12:00:** San Martinen, Gesaltza fanfarrea. Prado parkean, abenturari eskaintako eremua. Posta kalean, berriz, rokodromoa.
- 12:30:** Kale antzerkia Mamarro taldearen eskutik, Plaza Berrian. San Bizente parrokian, musika klasiko. Trikitixa, Aihotz plazan. Probintzia plazan, dantza txapelketa.
- 13:00:** Gasteizko Udal Musika Bandaren kontzertua. Foruen plazan, berriz, herri kirolak. Kultura aniztasunari eskaintako eremua, Amerika Plazan.
- 13:30:** Aitor Mendiluze, Jon Maia, Zigor Enbeita eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariak, Aihotz plazan. Gai-jartzailea Alberto Martinez.
- 17:00:** Zezenetarako kalejira, Plaza Berritik.
- 17:00:** Abenturari eskaintako eremua, Prado parkean.
- 18:00:** Nafarroako jotak, Probintzia plazan. Prado parkean, haurrentzako antzerkia: *Pailazoaren kalejira* eta *Zirko tailerrak*.
- 18:00:** Zezenketak: Juan Mora, Eugenio Mora eta Victor Puerto toreatzaileak.
- 18:00:** Gargantua Peñafloreda parkean.
- 18:00:** Mariaje Abaigar eta Just Friends Trioren jazz kontzertua, Amerika plazan.
- 18:00:** Eklipse orkestrarekin dantzaldia.
- 20:00:** *Atraco a las tres* antzezlan, Antzokian.
- 20:00:** Gop-rock kontzertua Monterroso kultur etxean.
- 20:30:** Zezenetatik itzulua, kalejiran. Dantza plazan, Larrain dantza eta Txulalai Udal Musika Eskolako gaiteroekin.
- 22:45:** Profesionalen eskuz binakako pilota partidak, Ogeta frontoian.
- 23:00:** Su festa Mendizabalatik. Antzokian, *Atraco a las tres* antzezlan. Probintzien plazan, Marianico el Corto eta Baluarte Aragones: *Esta fonda es la monda*.
- 23:00:** Fanfarreak Alde Zaharreko eta Hiriguneko kaleetan.
- 00:00:** Juan Pardoren kontzertua Foruen plazan. Oasis taldearekin dantzaldia Arka plazan. Florida parkean, Gorka Sarriegi.
- 00:30:** Unibertsitate gunean, Ken 7.
- 00:30:** Carrusel orkestrarekin dantzaldia.
- 02:00:** Reverendo Parker Unibertsitate gunean.

KIROL

KUTXI GASTEIZ

GAROKA

KAFETEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue!!

Fontetxako Gaztelua z/g
GASTEIZ

ERROTEGI JATETXEA

San Prudentzio, 3
Tel.: 945 232 634
GASTEIZ

EDAN-JANTEGI BAR-TXOKO

ANBOTO

Karta

Kutxillera, 29
Tf.: 945 25 00 93 - GASTEIZ

XABIER TABERNA

Kutxi, 23 - GASTEIZ